

KILT EGITASMOAREN AURKEZPENA

Hizkuntza eta kultura tresnak, osasun eta gizarte esparruetan laguntza bestela gauzatzeko

KILT egitasmoak **Leonardo da Vinci – Berrikuntza transferentzia** programaren laguntza badu, **hezkuntza eta formakuntza bizi osoan** programa europarraren tresna dena.

- **Etzarriko Formakuntza eta Garapena**
Pertsona, erakunde eta lurraldeen proiektuak eta aldaketak laguntzen dituen antolakundea (Ipar Euskal Herria)
- **Euskal Kultur Erakundea;**
Instituzio publikoek euskal kultura sostengatzeko ardura eman dioten erakundea (Ipar Euskal Herria)
- **Emilia-Romagna Eskualdeko Osasun Agentzia**
Emilia-Romagnan osasun eta gizarte politikaren ardura duen eskualdeko instituzio publikoa, (Italia)
- **CEFAL**
Gizarte eta laguntza sozioprofesional alorreko formakuntza erakundea (Bologna, Italia)
- **SPARK**
Kosiceko gizarte alorreko formakuntza egitura (Eslovakia)
- **ECKVRNM**
Ijitoak laguntzen dituen gizarte alorreko erakundea (Kosice, Eslovakia)
- **NHS LOTHIAN**
Edinburgheko ospitale publikoa, immigratuekin lan egiten duena (Eskozia)
- **Vall d'Hebron Research Institute**
Bartzelonako ospitaleari juntatua den fundazioa, immigratuekin lan egiten duena (Katalunia).

Proiektuaren HELBURUAK

- Gizarte alorreko laguntza metodologiak sortzean kultura nortasunak eta egoera konplexuak gehiago kontuan hartu, bereziki “gizarte ekintzaren ikuspegi integratu” batean bermatuz erran nahi baita pertsona dispositiboaren erdian ezarriz eta erantzun orokorren aldeko ekarpenak garatuz ;
- Lotura soziala eta profesionala indartu pertsona ahulen eta haien eguneroko laguntzaren ardura dutenekin ;
- Profesional horien lanbide iraunkortasuna erraztu lurralde berezien baitan eta/edo multikulturalak eta/edo multietnikoak diren guneeetan.

Hizkuntza eta kultura tresnak osasun eta gizarte esparruan lagundua den pertsonarekiko harremana errazteko

KILT egitasmoa arazo batetik abiatu da, hau da, gizarte-medikuntza arloko profesionalek maiz aurkitzen dituzten zailtasunetatik, laguntzen dituzten pertsonekiko harreman pertsonalean.

Gizarte langile franko egunero beren errealitate soziokulturalak dituzten populazioekin harremanetan dira. Hala nola Eslovakiako ijitoekin, Boloniara berrikitan heldu diren migratzaileekin, besteen meneko diren Euskal Herriko adinekoekin... Pertsona gehienek egoera traumatikoa bizi dute ikusiz haien egoera fisiologikoa, psikologikoa eta soziala.

Europar partaide desberdinak (*formakuntza erakundeak, laguntza sozioprofesional egiturak, osasun-egiturak, geriza erakundeak...*) galdezkatu dira profesional horiek duten zailtasunaz lagundu pertsonaren berezko izaera soziokulturala errespetatzen duen harreman ahal bezain eraginkorra sortzeko.

Hortik argi eta garbi agertu zaie **harreman azkarra, osoa eta orekatua finkatzeko ahalmena** profesionalak bereganatu behar duen lehen lehena dela. Gaitasun berezi eta osagarri honen garatzeko gaur egungo osasun- gizarte alorreko europar formakuntzetan, kultura eta hizkuntza nortasunak baita ere egoera konplexuak konduetan hartu behar dira erakasten diren laguntza metodologia guzietan.

Hortarako, formakuntza modulu eta kit pedagogiko egokiak ekoiztea ezinbestekoa da, besteekin harremanetan sartzeko, haien kultura eta hizkuntza berezitasunak integratuz.

Hizkuntza nortasuna eta egoera konplexuak kontuan hartzeak, lagundua eta laguntzailearen arteko harremana soziala eta profesionala piztuko eta azkartuko du. Profesionalen lanbide iraunkortasuna eta ekintza erraztuko du lurralde berezien baitan eta/edo multikulturalak eta/edo multietnikoak diren guneetan.

Kilt egitasmotik aterako diren ekoizpen eta komunikazio tresnei esker, kontzeptu eta metodo pedagogiko berriak sartuko dira osasun eta gizarte alorretako eskolen, formakuntza zentroen eta unibertsitateen ikasgaietan. Eta eragile profesionalen arteko europar sare bat egituratuko da, berritasun horietaz osoki jabetzeko.

KILT EGITASMOAREN ETAPA NAGUSIAK

1. Tresna generikoen prestatze-sekuentzia → 2013ko azarotik 2014ko uztailera.

Eskualdatzearen tresna-euskarri desberdinak elkar gurutzarazi, lurralde desberdinen igurikitzei egokitu eta maketa komun generikoa bururatu, herri bakoitzarentzat baliagarri izanen diren tresnen ekoizteko koadro gisa erabiliko dena.

2. Tresna baliagarrien prestatze-sekuentzia → 2014ko irailetik abendura.
Lurralde-proiektu bakoitzaren errealitate eta beharrei egokituak diren tresna pedagogikoak egokitu eta ekoitzi, eta eramatekoa diren proba eta ebaluazio modalitateak prestatu...
3. Proba eta baliozkotze sekuentzia bat → 2015eko urtarriletik uztailean
Tresna baliagarri horiek probatu aplikatu diren lurralde bakoitzean, ebaluatu modalitate komun arabera, eta kolektiboki ontzat eman nasaiki zabalduko diren tresna generikoak ekoizteko.
4. Zabaltzeari buruzko ikusmolde berezia → 2013ko urritik 2015eko irailera
Komunikazio lan bat garatu hunkituak diren eragile eta erakunde guzietan buruz, eta lekuko, nazio eta europar eskalen mailan atera emaitzak barreiatu.